

Otoitzean eta doean alkartutako esku
izan gaitezala, Jauna!
Zeure eskuei lotutako esku Aitarenetan,
Espirituaren hego biziei lotuta,
behartsuen eskuei lotuta.

Barri Onaren esku, Bizi-ereile,
itxaropenaren kriseilu, Bake-hegazkada.

Zure Esku solidarioei lotuta,
guztien ogia zatituz.
Munduko kurutzeetan zulatutako
zure Eskuei lotuta.
Pazko aldiko zure Esku aintzatsuei lotuta.

Esku irekiak, muga bakoak,
eskuak dagozan arte iristen diranak.
Hirugarren Munduari, Erreinuari leial,
Mundu osoa besarkatzeko gauza diranak.

Gogorak Zuzentasunaren aldeko grinan,
samurak Maitasunean.

Jasoten dabena biderkatutako doakotasunen
emoten dabena eskuak,
benetako eskuak, gero eta estuago lotutako eskuak.

Pedro Casaldaliga

azaroak 11 **Elizbarrutiaren Eguna**

2018 Solidaritateko Elizbarrutiko keinua

azaroak 16 09:30 / IKASTETXEETAKO IKASLEENTZAT: BILKURA ETA ZUZENTASUNAREN ALDEKO OIHUA
(Doña Casilda parkean) eta BIDEFORUMA (Zubiarten)

azaroak 17 12:00 / TAILERAK ETA TOPAKETA-BAZKARIA
(Begoñazpi ikastolan, alde zurretik PBar izena emon)

azaroak 18 **Pobreen Aldeko Eguna**



GARRASI EGIN, GARTSU EGIN

GRITA POR LA JUSTICIA



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

«Dohakabe honek dei egitean, Jaunak entzun eta larrialdi guztietatik atara eban» (Sal 34, 7)

Salmoak hiru aditzen bidez azaltzen dau dohakabearen jarrera eta Jainkoagazko hartu-emona:

GARRASI EGIN: Lehenengo eta behin, "garrasi egin". Pobretasuna ez da berba batean agortzen, zeruak zeharkatu eta Jainkoarenganaino heltzen dan garrasi bihurtzen da. Zerk islatzen dau behartsuaren garrasia bere sufrimentu eta bakardadeak, bere etsipen eta itxaropenak ez bada? (2. zenb.)

ERANTZUN: Jainkoak behartsuari emoten deutsan erantzuna beti da esku-hartze salbatzailea, arimaren eta gorputzaren zauriak sendatzeko, zuzentasuna itzultzeko eta bizitza duintasunez berreskuratzen laguntzeko. (3. zenb.)

ASKATU: Askatuz, Jaunak salbamena eroaten deutse euren tristura eta larritasuna erakutsi deutsenei. Jainkoaren esku-hartze ahaltsuari esker apurtzen dira pobretasunaren kateak. (4. zenb.)

Frantzisko, Behartsuen aldeko Munduko II. Egunerako mezua

"ERANTZUN" . . .

Makina bat behartsu dago-eta gaur egun be bide-ertzean, Bartimeoren antzera, bere egoera zentzuzko bihurtu guran. Askok eta askok zulo baltz horretara zelan iritsi dan eta zelan atara daiteken galdetzen deutso bere buruari. Zain dagoz, norbait hurreratu eta «izan bihotz!; jagi, deika daukazu-eta» noiz entzungo...

Ostera, zoritxarrez, behartsuek gehien entzuten dabezanak, gaitzespenak dira, isiltzera eta sufritzera bultzatzen dabezan aldarriak. Hitz zakarrak dira, sarritan behartsuen aurkako ezinikusiak eragindakoak, dalako persona horreek txiro izateaz gainera, segurtasunik eza, ezegonkortasuna, eguneroko ohiturak hankaz gora jartea dakarrela uste dalako eta, ondorioz, gitxiespena eta baztertzera baino ez dabelako merezi. Norbere eta besteen artean tartea sortzen da, baztertu orde Berarengana deitu eta kontsolatu egiten dituan Jesus Jaunarengandik aldentzen garala konturatu barik. (5. zenb.)

Frantzisko, Behartsuen aldeko Munduko II. Egunerako mezua

"GARRASI EGIN" . . .

- ◆ Garrasi egiten dot mundu guztiko pobretutako gizon eta emakumeengaitik
- ◆ Garrasi egiten dot etorkinengaitik, gerraren, gosearen, aukerarik ezaren... eraginez, euren herritik ihes egitera behartuta dagozan guztiengaitik
- ◆ Garrasi egiten dot indarkeriaren biktimengaitik
- ◆ Garrasi egiten dot bakarrik dagozan eta inork zaintzen ez dituan nagusiengaitik
- ◆ Garrasi egiten dot indarkeria jasaten daben emakumeengaitik
- ◆ Garrasi egiten dot sexu-gehiegikeriak jasaten dabezan adin txikikoengaitik
- ◆ Garrasi egiten dot kutsaduraren, klima-aldaketaren, basamortutzearen... eraginak jasaten dabezanengaitik
- ◆ Garrasi egiten dot ezinduta eta baztertuta dagozanengaitik
- ◆ Garrasi egiten dot homofobia jasaten dabenengaitik
- ◆ Garrasi egiten dot askatasunik ez daukienengaitik
- ◆ Garrasi egiten dot langabezia eta laneko behin-behinekotasuna, ezbeharrak eta gaitxotasunak jasaten dabezanengaitik
- ◆ Garrasi egiten dot pentsino urria dabenengaitik eta, batez be, emakume alargunen-gaitik
- ◆ Garrasi egiten dot mendekotasuna daben eta baliabide publikorik heltzen ez jaken personengaitik
- ◆ Garrasi egiten dot eskola-porrota jasaten dabenengaitik
- ◆ Garrasi egiten dot drogen eraginak jasaten dabezanengaitik
- ◆ Garrasi egiten dot bullyinga jasaten dabenengaitik
- ◆ Garrasi egiten dot...

"ASKATU" . . .

- ◆ Sufritzen dauanaren oinazea leporatzen eta neure gain hartzen dodanean
- ◆ Egoera bidegabeen aurka konprometitzen nazanean
- ◆ 'Bizkaia isilik' ekimenean parte hartzen dodanean
- ◆ Gizalegezko lanaren aldeko ekitaldietan parte hartzen dodanean
- ◆ Caritas edo beste gizarte erakunderen bat diruz laguntzen dodanean
- ◆ Caritaseko edo beste gizarte erakunderen bateko boluntario nazanean
- ◆ Auzo edo herriko alkarteakaz sarean jarduten dodanean
- ◆ Ingurumena zaindu eta errespetatu egiten dodanean
- ◆ Arduraz kontsumitzen dodanean
- ◆ Bidezko merkataritzan erosten dodanean
- ◆ Persona guztientzako gizarte zerbitzuak aldarrikatzen dodazanean
- ◆ Giza eskubideen alde egiten dodanean
- ◆ Banka etikoa darabildanean
- ◆ Gaixo bati lagun egiten deusadanean
- ◆ Kale gorrian bizi danarengana hurreratzen nazanean
- ◆ Nire auzoan, herrian, zailtasunak dabezan personez arduratzen nazanean
- ◆ Nire inguruan bakarrik bizi diranez interesatzen nazanean
- ◆ ...ko konpromisoa hartzen dodanean